

MIGEL SERBET

Inkisiziñoak, Eleizearen aginduz, asko erail ei eban, naiz sogiñak izan naiz fede-ukatzailleak edo fede okerrekoak izan.

Baiña beste erakunde batzutan be izan dira olako jokabideak. Aldi aretako gaisoa zan antza.

Migel Serbet jakituna zan eta berak aurkitu eban gure gorputzean dan odol-bide laburra (birietatik biotzera), baiña ospetsuagoa zan beste arlo batzutan, izar-iztian edo astrolojian, esaterako.

Egia esan bere idazkietan fanatismoa agiri da, burubide itsukoa zala ikusten da.

Lenengo katolikuen inkisiziñoan epaitu eban errea izatera, baiña Kalbino izan zan Ginebra'n ori egin ebana.

...

Gizaldietan eztabaidatu da Migel Serbet non jaioa zan, gaur ondo dakigu ez zala Muskaria edo Tude-la'koa. Aragoi'ko Villanueva de Sijena'n jaioa zan, 1511n. urtean. Orregaitik esaten eban berak arro-arro "España'ko Aragoi'tarra" zala.

Sendiz entzutetsua zan. Bere aitag eskribau edo notario-lana egiten eban.

Absburgo'n egon zala eta an ezagutu ebazala protestateak diño, baiña gauza ziurragoa da Basilea'n egon zala, Erasmo ezagutzeko gurariak eroanda, baiña Erasmo bera ez eban aurkitu. Bere jarraitzaileak baiño ez ebazan ikusi.

Liburu bat argitaratu eban "Irutasunari buruz oker-eritxiak" idazpuru dauala eta or diñoana ezarri nai eban Basilea'ko erasmotarren artean, baiña alpe-rik, protestateak Irutasuna sinistu nai ez ebelako.

Protestanteak ez eben ezer egin bere aurka eta katolikuak bereala baitu eben eta surtarako epaitu.

Andik Lion'era joan zan eta uri onetan bizi izan zan Migel de Villanueva izenagaz. Inkisiziñoa bere ostean ebillalako aldatu eban izena.

Aurkitu ezin eta, inkisiziñoa klerigoa zan bere anai-agana urreratu zan laguntza eskatzera baiña ez eben ezer lortu. Anai klerigoa sekularizatu bai egin zan.

Sinforiano Chanpanier osagillea ezagutu eban eta onek bideratu eban osagilletza ikastera eta arrezkero bere ikasbideak osagilletza ta izar-iztia (astrolojia) izan ziran. Orretan ebillela aurkitu eban odol-bide txikia gizakien gorputzean. Aurkitze aundia zan egin ebana, baiña berak ez eutson garrantzirik emon.

Vienne'ko gotzaiñak entzun eban astrolojian jakitun zala eta bere itzaldi batzuk be entzun ebazan gai orreri buruz Paris'en eta bere osagille lez artu eban.

Inkisidoreak bere billa ebilkiozan eta Vienne'n baitu eben. Berak lortu eban iges egitea baiña barriro arrapau-ondoren, su astitsuaz erreteko epaia emon eutsoen, besterik ezean bere irudia.

Bera Italia'ra joan bearrean, bere lagunak an eukazan-eta, Ginebra'ra, Kalbino'gana urreratu zan. Uri aretan Kalbino'k aginpide osoa eukan.

Lendik be Serbet'ek bere eritxiak agertzeko, idazki bat egin eutson Kalbinori, baiña onek erantzunik ez eutson emon.

Agustuaren 13n. egunean sartu zan eleizara Kalbino itzaldia egiten egoala. Bereala baitu eban.

Ille bian iraun eban epaiketak eta Serbet'ek bere burubideak zabaltzen egin eban lan eta Kalbino siniste okerrekoa ta sorgiña zala be esan eban.

Kalbino alegindu zan Serbet'en zigorra biguntzeko, baiña 1553n. urtean, urrillaren 27n. egunean erre eben eta erre eben toki orretan gaur bere oroitarria ta irudia dagoz.

OLAZAR'tar Martin'ek

